

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Jokin Uribetxebarria Madinabeitia
Aretxabaleta,
Gipuzkoa
(2000)

Aurkibidea



Biografia



Aretxabaletako Basabe kale-baserrikoa. DBH arte herriko eskolan ikasi zuen eta 16tik 18ra Almenen. Fisika ikasi zuen Bilbon eta Bartzelonan masterra egin zuen ondoren. Aretxabaletako enpresa batean dabil lanean. Jasan musika taldeko kidea da. Hitanoaren eta aisialdiko ohituren inguruan elkarrizketatu genuen, Ixak Sarasua taldekidearekin batera.

Zintak

ARE-086

- **Proiektua:** Aretxabaletan hika
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2024-04-05
- **Iraupena:** 77 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne

Pasarteak

1. Zeinek egiten dion hika eta non entzuten duen

- **Erref:** ARE-086/005
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:07:48. **Bukatu:** 00:09:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Etxean berari ez diote hika egin izan baina etxean entzun izan du. Aitak lagunekin hika egiten du lagun artean baina amak ez. Gurasoekin hika egitea deseroso zaio.

2. Hika umorerako eta brometarako erabiltzen dute

- **Erref:** ARE-086/006
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:09:44. **Bukatu:** 00:11:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Kalean nagusien kuadrilletan entzun izan dute; gazteagoen artean duela gutxi arte, ezer ez. Beraien artean broma eta umorerako erabiltzen dute hika pixka bat.

3. Hika lagun artean

- **Erref:** ARE-086/007
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:11:17. **Bukatu:** 00:13:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Lagun artean hika erabiltzerakoan, esaldi motzak erabiltzen dituzte. Elkarri zuzendu ere egiten diote. Kuadrillan baserritarra da bat eta hark ere bultzatu izan du. Nerabezaroan gaztelerak bete izan duena orain hikak betetzen du.

4. Hitanoa zeinek erabiltzen duen Aretxabaletan

- **Erref:** ARE-086/008
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:13:28. **Bukatu:** 00:14:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Hika gehien gizonezkoek, adinekoek eta baserrikoek erabiltzen dutela diote. Gazteen artean mutilen artean bakarrik entzuten dute.

5. Lagun arterako euskalkia

- **Erref:** ARE-086/012
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:20:52. **Bukatu:** 00:23:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Euskara batua oso formala dela diote eta euskalkiak erabiltzen diren herrietan, lagun arterako euskalkia erabiltzen dela. Erdarazko erregistro informala erabiltzen dute gazteek euskarazkorik ezean.

6. Euskaraz egitearen balioa etxetik

- **Erref:** ARE-086/013
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:23:37. **Bukatu:** 00:26:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:

Etiketetik jaso dute euskaraz egitearen balioa. Jokinek ez du erdaraz ongi hitz egiten jakin izan eta orduan, lagunek euskaraz egin izan diote. Jokinek DBHn nabaritu zuen erdararako joera.

7. Hitanoa indartzeko potentziala eta gogoa

- **Erref:** ARE-086/014
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:26:11. **Bukatu:** 00:28:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Hitanoaren egoera eskasa dela uste dute. Aldi berean, uste dute indarra hartzeko potentziala badagoela eta gogoa dutenak ere bai. Saiatu izan da Ixak noka egiten ere.

8. Zela erakutsi hika?

- **Erref:** ARE-086/019
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:33:49. **Bukatu:** 00:35:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Hika ikastetxeetan erakusteak lagunduko lukeela uste du Jokinek. Ixakek kontrako eragina izan dezakeela ere uste du; beste gune batzuk sortzea hobesten du.

9. Ingeleseko musika taldeak hasieran erreferente

- **Erref:** ARE-086/023
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:42:58. **Bukatu:** 00:45:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Musika taldean lau lagun dira. Ingelesez abesten zuten kanpoko taldeak zeuzkaten erreferentziatzat hasieran. Orain euskaraz denetarik entzuten dute.

10. Hainbat kanta hika erabiliz

- **Erref:** ARE-086/026
- **Iraupena:** 0:03:21. **Hasi:** 00:48:26. **Bukatu:** 00:51:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Kantuen hitzak txakek egiten ditu eta gainontzeko taldekideek bakarren bat ere bai. Kantu batzuk hika erabiliz egin dituzte. Zergatia azaltzen dute.

11. Kantak hika eta euskalkian

- **Erref:** ARE-086/028
- **Iraupena:** 0:03:11. **Hasi:** 00:52:25. **Bukatu:** 00:55:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

"Piztiarena" abestia ere hika egin dute. Aitaren laguntza izan zuen Jokinek hitanoan idazteko. Euskalkian kantu bakarra daukate.

12. Inguruko herrietan jotzen hasi eta pixkanaka zabaltzen

- **Erref:** ARE-086/029
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:55:36. **Bukatu:** 00:57:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

Diskoa atera aurretik, gaztetxeetan, tabernetan, herriko jaietan... jo izan dute, inguruko herrietan. Harrezkero, gehixeago irten dira.

13. Nerabazarotik gaztarorako aldaketan, euskarara

- **Erref:** ARE-086/032
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:59:06. **Bukatu:** 01:02:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Aretxabaletan futbolean erdaraz egiten dela dio Jokinek. Ohartu dira uste baino erdaldunagoa dela herria. Txakek sumatu du nerabazarotik gaztarorako aldaketan euskarara bueltatu direla batzuk.

14. Euskararen alde aktiboki

- **Erref:** ARE-086/034
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 01:03:35. **Bukatu:** 01:05:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:

Euskaraz bizi dira egunerokoan eta hizkuntzaren inguruko kontuetan aktiboki parte hartzen dute.

15. Watsapez euskalkian

- **Erref:** ARE-086/036
- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 01:08:53. **Bukatu:** 01:12:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Teknologia berriak eta sare sozialak
- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:

Irratia euskaraz entzuten dute eta albisteak ere euskaraz ikusten dituzte. Watsapean euskalkia erabiltzen dute.

16. Norbere hizkuntza ohiturez ohartzearen garrantzia

- **Erref:** ARE-086/037
- **Iraupena:** 0:03:13. **Hasi:** 01:12:06. **Bukatu:** 01:15:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Teknologia berriak eta sare sozialak
- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:

Bideoak eta sare sozialetako edukiak ikusten dituzte erdaraz. Teknologia berrien kontsumoan euskarak oso leku txikia duela uste dute. Norbera ohartzearen garrantziaz dihardu Jokinek.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-01-11

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com